

AMATXI

Elena Casiriain, 12 urte

Ortzaize

Ene amatxi,
Goiz haietan
Apain janzten zen.

Ene amatxiri,
Ni ikustean,
Bisaia zitzaion alaitzen.

Ene amatxik,
Niri, altzoan,
Esne xuri goxoa emaiten.

Ene amatxi,
Kontu-kontari
Usu zitzaidan hasten.

Baina amatxiren
Bizia
Belztu da!
Ilun beltza da!

Amatxi,
Zango ahulekin,
Buruan saltsa
Baten idurikoa.
Zergatik ote?

Amatxi,
Jartzen da,
Lepoa doakio
Alde batetik bestera.
Zergatik ote?

Amatxi,
Haur ttipia bezala
Soinu bitxika:
“Sss”, “Zzz”.
Zergatik ote?

Amatxi,
Arrotza banintz
Bezala
Ari zait behatzen.
Zergatik ote?

Amatxi,
Jateko,
Laguntza eske
Ari da.
Zergatik ote?

Amatxi,
Bizi korapilatua,
Bukatzen ari zaizu
Zuk galdegin gabe.
Zergatik ote?

Nik, amatxi,
Zuri matela
Berotzen dizut.

Nik, amatxi
Goxoki,
Eskua tinkatzen dizut.

Nik, amatxi,
Une goxo, lasai
Eta alaiak
Pasatzen ditut.

Nik, amatxi,
Zuk besoak zabaltzea
Eta besarkatzea
Dut eskas!

**BAINA EZ DAKIZU, AMATXI,
ZENBAT ZAITUDAN MAITE!**